

NIRE BIOGRAFIA:

Kaixo, ni Saioa Arregi Arruabarrena naiz, 1999ko Maiatzaren 13an jaioa. Ordizian bizi naiz eta Jakintza Ikastolako DBH1an nabil.

Nik zaletasun asko ditut, horietako batzuk margotzea, futboleko jolastea, gimnasia erritmikoa eta euskal dantzak dira..

Lehenengo aldia da idazlehiaketa honetara aurkezten naizela eta poz handia eman dit aipamena lortzeak.

BERTSOAK

Gaia: Txertoa jarri digute ikastolan

Doinua:

Minberatu gaituzte

1)

Gaur daukagu txertoa
goizeko hamarretan
oso urduri nago
larria benetan
mareatzen ari naiz
laurden gutxietan
eta lurrera noa
hamarrak puntutan

2)

Maretu orduko
jun naiz komunera
haizea ematen hasi
baitira gainera
borroso ikusten dut
nolako galera
oinez ibiliko naiz
atzekoz aurrera

3)

Esnatu naiz oraintxe
txertoa jarrita
erizainan izena
andere Pepita
amona txiki bat zen
trajea polita
beldurra ematen dit
ahoa itxita

4)

Jone nire laguna
zegoen negarrez
Maisua isiltzeko
esanez mesedez
lasaitzeko esan ta
kasu egiten ez
barrura sartu dira
eskua emanez

5)

Txertoa bukatuta
guztiok negarrez
hamabost persona ta
lurrean inor ez
batzuk sartu dira
beldurti ta nekez
eta atera dira
korrika eginez

6)

Txertoa bukatuta
hau ez da hobe
Naturanreko kontrola
orain egitea
Denok gelara goaz
banaka jartzea
gaurkoan zaila degu
guk kopiatzea

Egilea: ziplo